

everest: sei urte aliron batentzat



Goian ezkerretik eskuinera: Tokolo, De Pablos, Uriarte, Zabaleta. Beheran, ezkerretik eskuinera lehenengoa ez dakigu nor den, erdian Erro eta bere ondoan Lorente.

1974. urtean 300 metrotara geratu baziren ere, oraingoan lortu dute. Martin Zabaleta hernaniarrak eta Pasang Temea sherpak Maiatzaren 14ean munduko mendirik altuenaren gailurra zapaldu zuten. Hauei bai «aliron, aliron euskaldunak kanpeon» abestu behar diegula. Hainbat nahigabe eta ikara pasatu dituztenek, ikurriña Everesteko gainean zegoela jakin zutenean, beren biziko txanpainik goxoena edan zuten.


Espedizioko partaideek, mendizaleek, espedizioko en famili eta adiskideek, hitz batetan Euskal Herri guztiak lorpen izugarri bat ezagutu du, norbaitek esan duenez, Euskal Herriaren lorpen politikorik handiena. Ez dakigu horrenbestearainokoa den, baina 1974eko porrot egitearen gusto txarra behin betirako kendu digute.

Urtean zehar, Everestera eta euskaldunak joan diren bidetik, espedizio bat bakarrik joan daiteke, eguraldiak udaberrian bakarrik laguntzen baitu. Horrela, aurten Errusoei tokatzen zitzairen, baina Olinpiadak zirela eta, euskaldunei utzi zieten. Bestela, txandari itxoinez hemendik sei bat urterarte ez zitzairen tokatzen, munduko beste nazio askok ere rekord hori hautsi nahiean bait daude.

Errusoei eskerrak, 1980ko espedizio honetan gure herritarrak joan ziren. Hilabete askotako prestatzearen ondoren, talde bat Azaroan eta beste gainontzeak Otsailean irten ziren. Lehenagotik, bakarka edo taldeka. Everesteko arnas-estuasuna errazago eramateko, metro askotako aidean aritu ziren arnasa hartzen.



Lehen kanpamentuan ikurriña eta bandera antinuklearra.



5.400 metrotara finkatu zuten lehen kanpamentua.

Lehenengo taldeak, eginkizun zehatz bat eraman zuen, Katmandura iristen zen materiala lehen kanpamentura eraman, karreiatzaile eta sherpekin harremanetan jarri eta espedizio osoa elkartzen zenerako dena prest eduki. Eskerrak lehen talde hau aurretik